

ABIZENAK

Garzia: Asieran Naparroako erregeen etxean izena zan eta gero, abizen lez zabaldu da mundu guztira.

Jatorriz, “Artza” da, “jartzea”. 1546n. urtean agertzen da Naparroako epaitegietan.

Gardezabal: Laudion agertzen da. Bilbaon 1673.

“Garde” Erronkaritik dator eta izan leiteke arte-lekua. “-zabal” argi dago.

Gardoki: Larrabetzun eta Bilbaon agertu da eta karduk dagozan tokia esan nai dau. 1791 ikusten da.

Garibai: Oñate-ondoan auzo bat eta an agertzen da abizen au 1323n. urtean.

Jartoria “Garo-ibai”, ira artean doan ibaia.

Garitano: “Garo” irea da eta “-tano” toki-atzizkia. Bergaran agertzen da 1491n. urtean.

Garitaonandia: Zaldibarren torre-etxea. “Garita” eta “Onandia” dira itz-zatiak.

Garmendia: Gipuzkoatik Zaldibarrera etoria. Gero Ameriketara.

“Garo” irea dan ezkerro, iraz beterik dagon mendia litzake. 1632n. urtean agertzen da, Jerusalemgo Talde batera sartzeko.

Gernika: “Arno” sasia da, “G-” gero ezarria eta “-ika” toki atzizkia.. Alkantaran 1649.

Gorostidi: Gorosti asko dagoan lekua. Gipuzkoatik etoria da.

Garro: Izan leiteke garra, sua, dagon lekua edo “arro” aldapea. “G-” gerro ezarria da. 1589.

Gaztanbide: Gaztaña-landarak dagozen bidea. Sara 1609.

Gatika: “G-” gero ezarria, “-ati-” “arti” edo “arte”, eta “ka” toki- atzizkia.

Gazaga: Leniz’ko antxiñako gatz-iturrian, Zaldibar’en etxea, Mungian be bai. Gatza dagon lekua.

Gaztañaga: Gipuzkoakoa da. Gaztaña-landarak dagozen lekua. Seguran bizi zan bat: 1398.

Gaztelu: Erderazko “castillo”. Gipuzkoatik urten eta asko zabaldu da. Oñaten 1704.

Goiburu: Zumaian iru etxe. Goikoaren gorengo zatia da. Bilbao 1823.

Goikoetxea: Euskalerra osoan zabal. Goian dagon etxea esan gura dau.

Alegi 1652. “Goiko” da zarragoa agiritan: Elorrio 1575, Oñate 1388.

Goikolea: Bizkaian dago, Larrabetzun asita eta Goiko burdin-ola esan nai dau. Bilbao 1769.

Goikouria: Arratian sortu da. 1728. Ez dauka zer-ikusirik “uri” erriagaz, emen “uri” mendi-aldapa da.

Goiri: Lezaman asita, Arrigorriaga, Zamudio, Gamiz... “Goiko iria” esan nai da, goiko aldapa. 1651. Bilbaon. 1522.

Goiriena: Mungian dago geien eta Goiri abizena daukaren etxea esan nai dau. 1743n. urtean agertzen da.

Goitia: Euskalerra osoan zabaldua. Aretxabaletan 1625. Nabas de Tolosan 1212.

Goitolo: Gautegiz’en XII gizaldian.

Goi-aldean dagon soloa eta onen barruan dan etxea.

Goienetxea: Larrabetzun dago etxe au. Baztan’en eta Zizen be badago. Bermeon be bai.

Arlo baten goiena dan etxea. 1777.

Golzarri: Len Gorozarri. 1625. Gorostiak dagozen basoa: Sarri. Aramaiona 1625.

Gorozpe: Gorostiaren azpian dagon etxea. Urretxu 1643.

Goroziaga: Zeanurin. Goroziak dagozan lekua.

Navas de Tolosa 1212.